


ttipi-ttapa

1992.eko Urriak 15

95. zenbakia

dohain banatzen da



**URAK IA IA
ERAMAN GAITU**

Pisuak salgai ZUBIETAn



Hemendik gutxira bukatuak egonen dira. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta ganbara ederra. Propanozko kalefakzioaz hornituak. 9.100.000 pezetatik aurrera.

Kredituei buruz informazio-zabala Nafarroako Aurrezki Kutxa-CANen

Argibideak: (943) 426244

ETXALAR • USATEGIETAKO BESTA

Larunbata, urriak 17

10,30etan

ROCK JAIALDIA

ZUP

SASOI ILUNAK

SU TA GAR

Ondotik

GAU PASA

TTURRUTAK Taldearekin

Igandea, urriak 18

Goiz-arratsaldez

Nafarroako Dantzarien Arropa eta
Argazkien Erakusketa Plazan

12,30etan

Elizan, Irungo "Sustrai Txistu
Taldearen" Kontzertua

5etan

'Ortzadar' Fanfarrea

7etan

Dantzaldia EGAN Taldearekin

Antolatzaileak: ALTXATA KULTUR ELKARTEA, Etxalarko Udala eta Etxalarko Gazteak

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24** **ERREPORTAIA:** Hiru goizuetarrek 100 urte beteko dituzte aurten.
Esteban Arozena
-
- 26** **ELKARRIZKETA:** Julian Mitxelena «Barraka» gau lanetan hezitutako laisterkalaria
Joxemanuel Irigoien
-
- 28** **KIROLAK:** Nafarroako VI. Jolas-Kirolak laister hasiko dira 12 eta 15 urte bitarteko neska-mutilentzat
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun 453039

Gartzain 580451

Oronotz-Mugaire 592024

Ituren 450183

Sunbilla 450283

Goizueta 514067

Igantzi 637755

Arantza 634131

Bera..... 630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun 630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea 614600

Nafarroako ospitalea 102100

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

ANBULANTZIAK

Oitz 450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire 592044

GARRAIOAK

Bidasotarra 630279

Baztanesa 580129

Leitzarar 515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO**ZENTRUAK:**

Elizondo 580730

Lesaka 637154

Bera 630261

ABERIAK:

Iberduero 450335/450336

Botikak

► **Urriaren 17-18an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Urriaren 24-25ean**, Bera, Ituren eta F. Elizalde (Elizondo).

Deialdiak

► **IGANTZI**, Urriaren 22an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

Bertsoak

► **BERA**, Urriaren 24ean, 6,30etan Kultur Etxean Bortzirietako bertso eskolakoak.

Ekitaldiak**BERA****LURRAREN EGUNA**

Urriaren 25ean, Gure Txokoa, eskole-tako gurasoak, U.K.B. eta Euskara Batzordeak antolatua.

Egitaraua: Zangoztako Rocamador taldeko dantzariak, Auskalo (kale animazioa), eskulangileen erakusketa, barazki erakusketa, Zizkuitz txaranga, Berako trikitixa, etab...

Baita ere taloak eta sagardoa.

ETXALAR**USATEGIETAKO IGANDEA**

Urriaren 18an, goizez Nafarroako Dantzarien arropa eta argazkien erakusketa. Eguerdian Irungo Sustrai Txistu taldearen kontzertua. Setan Ortzadar fanfarrea eta 7etan berbera EGAN taldearekin

Kontzertuak

► **ETXALAR**, Urriaren 17an, gaueko 10,30etan rock jaialdia, «Zup», «Sasoi Ilunak» eta «Suta gar» taldeekin. Ondoren gau-pasa Tturruttak taldearekin.

Bota bertsoa**Jon ABRIL**

(Bortzirietako bertso eskola)

Gaia: Lurraren Eguna

Doinua: Orain bertsoan hasi nahi nuke

Hurbiltzen ari zaigu jadanik azil edo azaroa hil honetako hogeitabosta ez da izanen geldoa artisau eta eskulangilek izanen dute geroa eskulangintzak biltzen du ere iparra eta negoa.

Euskera eta kultura batuz egin nahi dugula jaija artea eta laborariak festa honetako gaia hauxe da behintzat ezarritako antolatzaileen nahia gonbidatua zaude Berara pasatu egun alaia!

AGENDA

Ekitaldiak

UDAZKENEKO
JIRA-BIRA

▶ ETXALAR

Urriaren 18an, Usategietako Igandea, Setan, "Ortzadar" Fanfarrea karriketan.

▶ ELGORRIAGA

Urriaren 24ean, larunbata, "Jig Matxin" antzerki taldearen 'Juguemos' lana Kultur Etxean. Hurrengo egunean, Igandean, 6etan, Baztango Dantzari Taldearen saioa.

▶ ARANTZA

Urriaren 25ean, "Trolo" antzerki taldearen 'Zalapartaka' lana arratsaldeko Setan pilotalekuan.

Erakusketak

▶ BERA

AMERIKETAKO
KULTUR HERRITARRAK
Kultur Etxean Urriaren 24tik aintzinera. Ant.: Udal Kultur batzordea.

Gastronomia

BERENJENAK TOMATE ETA PIPER SALTSAKIN

Osagaiak
4 lagunendako:

2 berenjena, 250 gr. tomate prejitua, piper lata erdia, arraultze bat, irina, 4 baratxuri, olio, gazta.

Berenjenak zuritu eta zabalera, zentimetro bateko



Karmele TOLOSak emana
ETXALAR

zerrak egin. Gazta bota eta utzi ura botatzen. Bitartean,

piperrak tiratan puxkatu, zartagi batetan olio bota, 4 baratxuri xerretan bota eta ondoren piper tirak eta ezari ezarian egiten utzi. Berenjenak xukatu eta arraultze eta irinan pasa ondoren, zartagi batetan prejitzen jarri. Eginak daudenean lurrezko ontzi batetara pasa, gainetik piperrak eta tomate botako diogularik. 10 minutu utzi egiten. Serbitzeko perrexila fin fin bota gainetik.

Baserriko feria

▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.700 pza. Zerri gizona (95-100):135 pza/kilo Zerramak: 65-85 pza./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....530-540
1.koa.....500
2.koa.....425

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....515
2.koa.....435
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean daukaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruzentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400-420 Pzta./Kg. Ka-

nal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 15.000-22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 30.000-40.000 pza.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

W 11 galdera Ilabur



Xabier Silveira
Lesakako bertsolaria

- ▶ **Bertsoa ala rock-a?** Rock-a.
- ▶ **Portugal ala Euskalerrria?** Euskalerrria.
- ▶ **Bertsoak kantatu ala idatzi?** Kantatu.
- ▶ **Bertsoak aditu ala kantatu?** Kantatu.
- ▶ **Bertso saioa ala poteoa?** Poteoa.
- ▶ **Neskak, bertsoarako ala ligatzeko?** Bertsotan ligatzeko.
- ▶ **Marrazki bizidunak ala bi ronbotako pelikulak?** Bi ronbotako marrazki bizidunak.
- ▶ **Ikasketak ala lana?** Lana.
- ▶ **Negu Gorriak ala Xebastian Lizaso?** Negu Gorriak.
- ▶ **Bakarrik bizi ala gurasoekin?** Gurasoen kontura baino bakarrik.
- ▶ **Musa ala muxua?** Mus partida irabazita gero muxua.

W Musika



US
Peter Gabriel
1992

Genesis taldea; berritzailea, agresiboa, harri-garria eta egiazko kalitateko taldea zen. Peter Gabrielek, sortzaile ez ezik, buru ere egiten zuen talde hartan. 1966ean hasi eta 1975ean alde egin zuen taldetik sei diska estudioan eta bertze bat zuzenean grabatu eta gero. Geroztik bere gisara segitzen du.

Diska berria sortzen duen aldiro gertakizun aipagarria izaten da mundu guztian eta edozein girotan gustora entzuten bait dira bere lanak. Sei urte egon da dis-



Peter Gabriel
Genesis taldean hasi bazen ere, orain bakarka burutzen du bere lana

ka berririk atera gabe. 23 abesti eta musika asmatu eta 13 abestietan gelditu da orain berriro ezagutzen hasi garen diska berri hau, «US» izeneko. Nahiko pertsonala eta guedo zuek erran nahi omen du, berak ala dio.

42 urte dau-

kan asmatzaile eta abeslari hau Ingalaterrako hegoaldean bizi da leku ezin lasaigobatean. Bertan dauka «Real World» azken urte hauetan hain ezaguna egin den sello diskografikoa. Berak bere estudioan grabatzen die hiru-garren munduko

hainbertze musiko eta abeslari ezezagunei: hegoalde amerikarrak, afrikarrak eta asiarrak.

Bere estudioa mundu guztiko soinu eta instrumento laborategi bat da.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

☎ 63 12 67 - BERA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

CLAAS S. Semper



SAME

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

Irazoqui

Echenique

Echeverria

Alzugaray

MICHELENA

Yanci

Inigoen

Abizenak ofizialki euskaraz paratze-ko aukera ba omen dago. Informazioa jasotzeko deitu Malerrekako Euskara Zerbitzura (450454), Baztango Euskara Zerbitzura (580006), Leitzako Euskara Zerbitzura (504400) eta Bortziritako Euskara Mankomunitatera (634125). Modu honetara, gure euskal abizenak ez ditugu "c", "ch", "v", "y" edo antzeko letrekin ikusiko.



VI. Lurraren Eguna burutuko da aurten ere Beran urriaren 25ean. Beti bezala, Gazta lehiaketa, eskulan eta barazki erakusketa eta izugarrizko animazioa izanen da Berako karriketan barna. Bertze zenbait ekitaldi ere antolatua daude Kultur Egunetan.

GOIKO

Siderurgi Korporazioak aurkeztutako Konpetibitate Planaren aurka Laminaciones-eko ordezkari-tza Madrilera oinez joan zen



«Laminaciones de Lesaka» enpresako hogeit laguneko ordezkari-tza abiatu zen urriaren 9an Madrilerara oinez. Siderurgi Korporazioak aurkeztutako Konpetibitate Planaren aurka beraien protesta azaltzeko.

Enpresa komiteko sindikato guzietako ki-deak parte hartu zuten. Goizez Iruñera autobusez abiatu ziren eta handik Laudiora. Bertan AHVko

gainotzeko planten ordezkari-ekin bildu eta Madrilerara abiatu ziren, tipi-tapa.

Badirudi konpetibitate planak ez duela itxuraz eragin handirik Laminaciones-en, baina bai AHVko Sestaon duen planta nagusian eta sindikatoen ustez, «zentralari gerta dakioken edo-zer, eragina izanen du, denborarekin Laminaciones-en etorkizunean».

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenean, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzealde Behean.



EGOERA BAT ARGITUZ

Kontu tekniko bat arazo sozial batean nola bihurtu den esplikatuko dut, hauxe baita Puy ostatuaren kasua.

Duela 2 urte baino gehiago ostatuaren jabeekin egon nintzen, musikaren soinu altuarekin lo egitea ezinezkoa zitzaiagula argituz (kontutan hartu ostatu gure etxeko paretan nagusiaren kontra eraikia dagoela).

Denbora pasatu da eta denak berdin

segitzen du, behin eta berriz beraiekin egoten naiz baina kasurik ez. Orduan Udalera jotzen dut nere arazoa esplikatzeko. Teknikoa etorri zen eta zerbait moldatu arazi zien arren, musikak hagitz altu segitzen zuen. Berriz jabeekin egon eta lehen bezala, kasurik ez. Berriz Herriko Etxera joan eta teknikoaren bigarren bisita. Honek zera agindu zien: Balkoi bat hobeki aislatzea eta tarametroa jartzea (dezibelioak erregulatzatzen dituen aparatu

eta altuago jarriz gero, saltatzen dena).

Denbora pasatu da eta musikaren arazoak berdin segitzen du, berriz gauza bera komentatu eta hori ezinezkoa dela erraten didate, tarametroa paratua zutela. Berdin jarraitzekotan berriz Udalera joko dudala abisatzen diet eta hirugarren aldia izanik, multa eta denboraldi batetarako ixtera behartuak egon daitezke.

Nik, egia erran aluzinatu egin nuen, izan ere gau horretan bertan musika orain-

dik fuerteago jarri bait zuten.

Gauzak horrela, hirugarren salaketa egin nuen, eta tekniko etorri zenean zenbait anomalia aurkitu zituen: isolamendu edo aislamendua nahikoa ez izatea eta tarametroa desprezintatua egotea (bakoitzak bere konklusioak atera ditzala).

Karta hau, aferat tekniko bat arazo soziala bihurtu dela erranez hasi dut eta horrela da, zeren eta etxeko paretan agertu zen pintadaz gain,

gure baratzeko zenbait fruitondoren adarrak hautsiak agertu dira eta bajera ondoan genuen mangera ostatuko terrazan. Gauza hauetariko zenbait joan den hilabeteko 26ko goizeko 7,30etan gertatu ziren.

Bukatzeo, dago-kion erakunde publikoari arazoan eskuhartzea eta lehenbailehen soluzio-
ren bat aurkitzea eskatuko nioke.

Merezi duela uste du eta gainera egingarria dela. J. ADO
72.652.501

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



ESTETIKA • SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

B RADIO BIDASOA

* Zure bideo erreportai-ekin, pozik zaude?

* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?

Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.

Orduaz hitzegin dezakegu, oinarriko maila:

Grabaketa eta montai

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377



MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40
BERA

Kultur Egunak egitarau bete-betearekin datoz

VI. Lurraren Eguna urriaren 25ean ospatuko da

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Dударик gabe, aurten seigarren aldiz burutzen den Lurraren Eguna izanen da Kultur Egun hauen eiktaldirik aipagarriena. Urriaren 25ean, VI. Gazta lehiaketa, Zangotzako «Rocamador» taldeko dantzariak, «Auskalo» Kale animazioa, eskulangileen eta barazki erakusketa, Zizkuitz txaranga, Berako trikitixa, taloak eta sagardoa izanen dugu, Gure Txokoa, eskoletako gurasoak, Udal Kultur Batzordeak eta Euskara Batzordeak antolatuta.

Urriaren 24ean, berriz, bertso saioa izanen da Kultur Etxean arratsaldeko 6,30etan, bide batez bertso paper lehiaketaren sari banaketa eginez. Bertan, Amaia eta Aitor Telletxea, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Xabier Silveira, Estitxu Arozena,

Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena arituko dira. Gai-jartzaile bezala Jon Abril eta Xabier Erkizia egonen dira.

Urriaren 24tik aintzinerara, «Ameriketako kultur herritarrak» izenburupean erakusketa izanen da Kultur Etxean eta hilaren 28an, haurren margo erakusketa izanen da Altzateko frontoian. Bertze zenbait ekitaldi ere antolatuak daude datorren hilabeterako.



VI. Lurraren Eguna izanen da Berako Kultur Egunen eiktaldirik aipagarriena baina ez bakarria.

GOIKO

Hurrengo 25 urteetan ez dugu ur-eskasiarik izanen

Suspel-Ttikinegindako ur-deposito berriari esker (2.000m³), ur-hornidura segurtatua dago 25 urteetarako. Inaugurazio ofizialera Nafarroako Gobernuaren Administrazio Lokaleko Zuzendari Nagusia etorri zen eta obrak egin dituen enpresak, "Mariezkurrenak", Pilota Par-

tidua eta hameketakoa eskeini zuen mila lagunentzat Eztegarra Pilotalekuan.

Matxain errekatik ura ekartzeko erabili diren 6,5 km tuberia jartzeak, depositoak, kloratzaileak eta gainerako obra guztiak 260 milioitako kostoa izan dute; hauetarik 180 milioi Nafarroako Gobernuak jarriak.

ttipi-flash

□ Udal informatikan euskara sartzeko eskaria luzatu du Udalak, Euskara Mankomunitatearekin bat eginez.

□ Udal artxiboa txukuntzen ari dira. Nafarroako Gobernuak 3.650.456 pezetako dirulaguntza eman du eginkizun honetan laguntzeko.

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

LESAKA

71 asistentzia egin zituen DYAk urteko lehen sei hilabetetan

Lesakako delegazioan urgentziazko hamabortz kura egin ziren epe berean

AITOR AROZENA

Bortzirietako DYA elkartek 1992. urteko lehen sei hilabetetan egindako asistentziak 71 izan dira, iaz bezelatsu. Hauetatik 39 eritasun grabeagatik izan dira atendituak, 18 trafiko istripuagatik, 6 lan istripuagatik, 5 kirol istripuagatik, 1 etxean izandako istripuagatik eta 2 suizidiotara ere agertu ziren DYAk kideak. Hauetatik 11 kasuetan ez zen beharrezkoa izan trasladorik egitea.

Delegazioan urgentziazko 15 kura egin dira, hauetatik 3 Lesakako Osasun Zentrora bidali dira puntuak emateko eta 5 Irungo Ospitalera.

Hilabeteka, anbulantziak 16 kasutan parte hartu zuen urtarrilan, otsailan 14tan, martxoan 9tan, apirilan 11tan, maiatzan 13tan eta ekainan 8tan.

Erreskate ibilgailuak lau aldiz parte hartu du trafiko istripuetan eta behin zerbitzu berezian



Jubilatuena egoitzan sozioak bakarrik

San Fermin Jubilatu elkarteak Alhondigaren behelaldean duen egoitzan sozioak bakarrik sartuko dira hemendik aintzinerara. Horrelaxe erabaki zen irailaren 26ean egindako batzarre batean, aldeko 137 botoekin eta aurkako 9ekin. Hilaren 11ean berriz, zuzendaritza berria aukeratzekotan ziren.



Euskadiko Marmitako txapelketan seigarren postua lortu zuten Arkupe elkarteko lagunek Euskalerrria osoko 102 partaideen artean

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

*** KIXKUR ***
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

ARRANO

OSTATUA
Legarra - LESAKA

ttipi-flash


□ Tenis ikastaroak antolatu ditu Beti Gazte elkarteak maila ezberdinetan.

□ Bertso saioa izanen da Udal pilotalekuan hilaren 17an gaueko 10etan «Bertsolari» aldizkariak antolatutik. Bertan, Lizaso aita-emeak, Agirre, Euzkitze, Murua eta Xanpun bertsolariak arituko dira eta Manolo Arozena izanen da gai-jartzaile.

Orementa aldean bazkaleku bereziak eginen dira

5.700.000 pezetako kostua izanen dute

PELLO APEZETXEA



Marraztutako zatietan eginen dira bazkalekuak

Etxalarren 330 hektarea belati dira denetara, iralekuek, berriz, 1.484 hektarea hartzen dituzte. Iraleku hauetan bazka egiten da baina ez aunitz. Bazkaleku bereziak eginen dira orain, zerrakuraz itxiak eta ur askaz hornituak; hamar hektareako eremua momentuz. Toki horretan bazka ugariago izanen da,azienda gehiago bazkatuko, eta horrela arboladiak ere hobeki zaintzen ahal izanen dira. Orain prestatuko den bazkalekua Orementa aldean eginen da, 5.700.000 pezetako kostua izanen duen.

Plazako komunak berriz ere irekiak

Urte saila joan da komun horiek ezin erabiliz egon direla. Oraingoan konponketa lanak burutzen ari dira, behar bada *ttipi-*

ttapa hau eskuratzen duzunerako akaturik ikusiko dituzularik. Lanen kostua bi milioi pezeta pasatua da, egilea Juan Mari Iturria eta jendearentzat aski ongi datorren zerbitzua izanen da.

Hilabete batzuz herri langilea

Aintzineko urteetan Estatuaren dirulaguntzaz langile pare bat hartu du Udalak, herriko lanetarako. Aurten bat bakarra hartu ahal izan du, eta gainera soldataren zati bat Udalak berak ordainduz.

Ikastetxeak nola geldituko dira?

Bortzirietako Eskola Publikoetako Guraso Elkarte eta Eskola Kontseiluek honela nahi lukete izatea: Arantzan 14 urteak arte aritzea, Etxalarren eta Igantzin 12ak arte, Lesakan eta Beran 16ak arte. Horrez gain, batxilergo guziak Bortzirietan egin ahal izatea.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«J S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42

LESAKA

IGANTZI

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere bestak ongi igaro ziren

Garaiar oiartzuarrak irabazi zuen Artzai-zakur lehiaketan

OSKAR TXOPERENA

Bestak ere pasatu dira eta gazteak hurrengoak prestatzen hasiko badira ere aipa ditzagun aurtengoan zerbait gauza.

Ekitaldi bakar bat ere suspenditu ez bazen ere, nahiko lan kosta zen larunbat eta igandekoak aintzinera ateratzea, izugarritzko euri erauntsiak bota bait zituen. Artzai zakur lehiaketaren zati bat kendu behar izan zuten, motzagoa izan zedin, Garaiar oiartzuar gaztea izan zelarik irabazlea. Ondotik plazan egitekoa zen bertso saioa, elizaren barrenean egin behar izan zen. Jendez bete bete egin zen gainera eta saio bikaina eskai-



Euri erauntsiak izugarria izan baziren ere egitarau osoa bete zen

OSKAR

ni zuten Mañukorta, Euskitze, Lizaso eta Peñagarikanok. Gainerako programa normaltasun osoz bete ahal izan zen. Bi gauza genituen aurten aintzineko urtetan ikusi ez direnak: arkuarekin geziak botatzen bezpera egunean egin zuten erakustaldia eta Igan-

tziko hiru gaztek herri kirolean egindako saioa: Miguel Angel Etxarte, Eduardo Eugi eta Luis Mari Zelaieta.

Programa bikaina erran dugunez eta zaila bada ere, ea datorrenean hobea den.

□ Urriaren hasieran izugarritzko euriak bota

ondotik larri ibili dira Igantziko Bentatan. Molinean nahiko gotti egin zuen urak eta Berrizaun etxean aziendak kanpora ateratzen aritu omen ziren ura ia sartu zelako. Zerunetako parean berriz, errepidera atera zen ura, ibilgailuen pasoa oztopatu ez bazuen ere.

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
 KOTXE BERRIEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 Herriko Etxeko Plaza - BERA


KIROLAK ZELA
 Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

GOYA
 JOSTAILUAK
 JANTZIGINTZA
 OPARIAK
 BURDIN TRESNERIA
 Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KLOXKA

 Legia 11 - 63 06 64 BERA

KOXXKONTA

Sagardotegia Erretegia
 Ezkontza,
 bataio, bileratarako
 leku egokia
 (200 pertsona)
 Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

SAROBE
okindegia 
SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua
 Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
 Tfnoa: 630259 - BERA

Eskolako neska-mutikoak Xorroxin irratian hasiko dira

Beraien saioak asteartetik ortziralera bitarte burutuko dituzte


MIRARI AMAIA eta MARTA

Aurten ere hasitzekoak dira eskolako neska-mutikoak Xorroxin Irratian beraien irrasaioak egiten. Hauek asteartetik ortziralera burutuko dituzte, goizeko 10etatik eguerdiko 12etara. Eskolako haur guztiak parte hartuko dutenez, aditu.

Bertzalde, Joxe Ramon Amorošek jarraitzen du Arantzako korrespontsal bezala Xorroxin irratian. Astearte eguerditan aritzen da herriko berriak emanez.

Mediku berria erdalduna dugu

Mediku berria etorri zaigu baino erran beharra



Lehen ere artuak dira Xorroxin irratian

ARTXIBOA

da erdalduna dela. Aurora du izena eta Isaba da bere sorterrria. Gai honekin segituz, erran Aurorak aukera guttiago izanen duela euskara ikasteko, izan ere Nafarroako Gobernuak funtzionarioek euskara

ikasteko zuen dirulaguntza murriztu egin bait du. Lehen 9 hilabete subentzionatzen zituen bitartean, orain bakarrik 5 hilabete-tako klaseak subentzionatzen omen ditu. Bertze herrian ere arazo bera dute.

Herri kiroletan, Igantziko bestetan

Arantzako herri kirol taldeak parte hartu zuen Igantziko bestetan egingandako ikustaldian. Froga konbinatuan Lesaka izan zen lehenbizikoa, Arantza bigarren eta Arraiotz hirugarren. Sokatiran, berriz, Arraiotz izan zen lehena, Arantza bigarren eta Lesaka hirugarren.

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean mendietarako bi proiektoren berri ematen genuen. Zerratu eta plantatzeko 20 milioi izan beharrean 25 milioi izanen dira eta mendia garbitzeko berriz, 8 milioi aipatutako 5 milioien orde. Barkatu.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52

Zalain auzoa, BERA



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK

ETXERAKO ZAPATILAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

SARA

Usategi Berri lepoan ihizatuko da aurten

Bertzalde, Urriaren 17an Minima eguna ospatuko da

OLHAIN ELKARTEA

Aurten usategiko ki-deek ez dituzte lehengo lekuan ezarriko sareak. Usategi Berri deitu lepoan ihizatuko dute (lehengo usategia eta Nabarlatsen artean), 1975 eta 1976ean egin zuten bezala. Iduriz usoarentzat bide egokiena litaikela... Agian eguraldiak lagundurik sarekada on batzu eginen dituzte ihiztariek. Luzaz atxik dezagun ohidura hau.

Minima eguna

Aurten Minima bi aita-detan ospatuko da. Urriaren 17an kirol aterpean arratseko 10etan Anje Duhalderen kantaldia eta ondotik dantzaldia Xinaurri Gorriak taldearekin.



Dantzari Ttiki Eguna antolatu zuen Zazpiak Bat elkarteak

JOXEMANUEL

Biharamunean igandearekin, Minima eguna: 10,30etan meza nagusia Sarako kantariekin. 11,30etan hameketakoa Ezpeletako txarangak alaiturik eta bazkaria ostatueta. Arratsaldean, 3,30etan indar joko eta zoin

gehiagoka. Sunbilla eta Amaiurko arpanlariak, Hiru Kirolak (harrijasotzea, aizkolariak, txingak), irri egiteko jokoak gazteen artean, Koxe Bikondoa aizkolariak egurra zutik moztuko du. Ezpeletako txaranga beti giro emaile.

Zazpiak Bat

Elkarteak bilkura nagusia egin du Irailaren 26an, aurten 20 urte betetzen zituela eta Taldea azkar agertu da urtean zehar: 52 dantzari, txistu eta gaita eskola, maiatzaren 8an Dantzari Ttikiren karietarat 1.200 haur biltzen zituen, Apirillean Corsicarat egin bidaia...

Dantza ikasgaiak larunbat arratsalde 3ak eta 5,30ak artean; dantza ikasgaiak helduentzat, astearte eta ortziral arratsaz 9etan; musika ikasgaiak, txistua asteazken arratsalde eta gaita larunbat arratsalde.

Lehendakaria Jean Elizagoyen da eta lehendakari ordea Sofioa Elizalde. Diruzaina, J.M. Jauregi eta idazkaria Collette Ayez.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumek
- ❖ Bitxitegi fina



AMEZTIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

Udazkeneko Jira-bira

IOSUNE eta IXABEL

Aurtengo Udazkeneko Jira-birako egitarauak atara dira. Badirudi aurten berritasun bat izanen dugula, batez ere rock zaleentzako. Azaroaren 7an, frontoian gaueko 11etan rocka, Taxi Karlo eta Dulce Avaricia taldeekin. Azaroaren 8an, elizan korala (Leitzako Asketa taldea) eguerdiko 12,30etan.

II. Gomazko paleta txapelketa

Neguko II. Gomazko paletaren txapelketari laister hasiera emanen zaio,

Ilurdi eta Ulibeltzak antolatuta. Parte hartu nahi dutenak, urriaren 16a arte inskripzioa idekia izanen da (450459 edo 450826 tf-notan) eta bikote bakoitzak 2.000 pza ordaindu behar-ko ditu. Partiduak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatuko dira 30 tantutara.

☐ **Euskara** ikastaroak hilaren 13an hasi ziren. Norbaitek hasi nahi baldin badu oraindik denbora du.

☐ **Fonda** taberna, konponketak egin ondoren Urriaren 3an ireki zen.

560 kilotan txapeldun



Nafarroako 560 kilotako sokatira txapelketan Sunbildarrak nagusitu ziren Basaburua eta Amaiurren aurrean. Indarrak nahiko berdinak izandu ziren eta puntu berdinak atera zituzten, ondoren bi desentpate egin eta azkenean Sunbildarrak irabazi zuten. Nahiz eta joan den urtean bezala ez egon, aurten Sunbillak bi txapela lortu ditu, 680 eta 560 kilotan.

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

12

Ostatua

Amezitia 12, Tfnoa: 450153. DONEZTEBE

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

MENDI HOTELA



DONAMARIATKO BEINTZA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

DONEZTEBE

Eskolako frontoiaren teilatuaren berritze lanak hasi dira

Izan ere, eskola eta kirol konpetizioak hasiak dira eta pilotalekua ezin da oraindik erabili

TXEMA ALDABE

8.195.102 pezetakoa izanen da moldatzearen balioa eta 'Sicesal' enpresak egingen du. Nafarroako Gobernuak %70a inguruan ere lagunduko omen du. Frontoiaren teilatuak izugarrizko kalteak jasan zituen abuztuko kazkabarren ondorioz eta geroztik putzuak sortzen dira bertan. Horregatik urgentzia handia zuten obrak.



W ttipi-flash

- Judo** eta Wing Tsun ikastaroak egingen dira eskolako gimnasioan.
- Malerrekako** Zerbitzu Mankomunitatearen estatutoak ahobatez onartu zituen Udalak.
- Ur** kloratzaile elektriko berria erosiko da.
- 40.000** pza eman dio Udalak Laminacioneseko enpresa komiteari, Madrilko martxan laguntzeko.

URROTZ

San Migelak jendetsuak izan dira aurten

TXEMA URROTZ

Zenbaitzuk harritu egin dira aspaldian ikusi ez zen jende pila ikusita Urrotzen.

Bertze inon (Igantzitik aparte, noski) bestarik ez izatea izanen zen arrazoirik garrantzitsuenak. Nahiz lehenbiziko, laugarren eta bosgarren egunetan eguraldia nahiko ongi portatu, ez zen hala izan larunbatean eta igandean. Baina egun hauetan frontoi estaliak bere bentajak erakutsi zituen eta larunbatean dantzaldia salbatu egin zuen, barrenean giro eta jendetza

ederra izan zelarik.

Haurrendako ere izanduen saio berezirik, larunbatean Takolo, Pirrux eta Porrottek ratu ederra bat pasatu arazi bait zuten euren animazioarekin.

Hala ere herritarrendako egunik ederrena dudarik gabe, azkena izanduen, bertsolariak egoteak jende gehiago animatu bait zuten herri bazkarira.

Nahiz eta zenbaitzuk kasu aunitzik ez egin, gehienak ederki pasatu zuten Lizaso eta Mendizabalek egin zituzten ateraldiekin.



Giro ederra izan zen Herri bazkarian

Gabaz plaza bete jende rekin, erran bezala, aspaldian ibili zen Modestodiko partez.

Zintaren

ARROPA K

Arropa polita
Udazken eta negurako
San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater kombinatuak
 Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

109 milioi hurrengo Hirurteko Planean

Ur eta saneamendu sareen moldaketa eta zenbait kaleren pabimentazioa egingen da

IBAN ISASI

Urriaren 3an egindako Udal plenoan ontzat eman zen Ituren Nafarroako Gobernua antolatzen duen Hirurteko Planean sartzea. Aurrekontua 109 milioitakoa da eta honen barruan ur eta saneamenduko sareen moldaketa emanen da, zenbait kaleren pabimentazioa eta elektrifikazioa. Ameztiako bidea ere konponduko



da. Hauek dira, bertzeak bertze, egingen diren lanen artean garrantzitsuenak. Hurrengoan proiektu hauei

buruz argibide gehiago emanen ditugu.

Nafarroa Oinez-era autobusa

Aurten eta lehendabiziko urtez Iturenen autobusa antolatu zen Nafarroa Oinez-era joateko. 40 bat pertsona joan ziren bertan eta urtero egiten den bezala bazkaria egin zen. Joaldunak ere ez zuten hutsik egin Bianako zitara eta Udalak 5.000 pezetako laguntza sinbolikoa eman du.

ZUBIETA

JUAINAS

Lastima! Ondarrean ez bait zen egin. Bertsoak idatziak zituzten, saioak eginak, ere... goizaldeko ordu horietan... eta 27an, zas! kriston euria. Bakarren bategen euria problema ez dela usten badu, uler dezala: euriak hoztu zituen epel xamar zeuden zubitarrek -lotsa dela eta-, zubitar-eusko-iparretarren desesperaziorako. Beste batean?

Errepikatuko ez dena, espero dugu, beste hori da, gazteen akzidenteak, oraingo honetan Natali, Lur, Antxon, Jose Ramon eta Juan Luiseri tokatu bait zitzaion. Iturengo Lopetxeneko amerikuanarekin topo egin zuten karaz-kara. Go-

gorrena Juan Luiseri joan omen zitzaion, dagoeneko ongi egonen delakoan, animo!

Bidaiak egon dira, baita ere, ioaldunak hagitz mugikorrek bait daude. Exporra hi! Sevillako Lolak zer pentsatuko zuten gure mutilen burrunbaz? Ayyyyy! Ele, la grazia! Dena estranjera ez dela eta Nafarroako mugetara joatekotan dira, Bianara, alegia. Hau plaza-ratu orduko etorriak baldin badira ere, beuren arrimoan antolatu nahi zen autobusarena ilunagoa ikusten dut: egingen dugu zubitarren estiloko azken orduko kolpea? Denak galderak dira, ale honetan, gaizki tokatzea suertatu delako. Zeren 14rako jakinen bait dugu



Kartel ponpoxoa
ere egin
zegoen baina
kriston euria
egin zuen

EPako zenbat ikastaro egingen ditugu aurten. Bi, fijo: zurgintza eta sukaldaritza.

Makrame eta laborantza biologikoa? Auskalo! Apostuak onartzen dira!

LEITZA

Hiru leitzarretatik bat, 1.000 gazte, 20 eta 40 urteren artean dago

74 gizon-emakume 80 urtetik gora daude



ANTTON ERKIZIA

Azkeneko zentsoaren ariora, 3.180 biztanle edo bizilagun ditu Leitzak. Astia hartuz, izugarrizko ondorio pila atera daitezke zentso hortatik, soziologian balio handia duten datuak.

Hirutatik bat 20 eta 40 urteren artean dago. Hau da, adin sasobe hortan mila gazte. Gainera, beste mila daude 20 urteren azpitik. Beraz, 3.180 biztanletik 2.000 eta gehiago 40 urte

egin gabekoak. Seguraski, inguru hontan den herririk gazteena da Leitza.

Eta adinekoak ere, mordo ederra dago. 28 gizon eta 46 emakumek 80 urtetik gora daude.

0-10 urte artean.....	400
10-20 urte artean.....	600
20-30 urte artean.....	520
30-40 urte artean.....	500
40-50 urte artean.....	440
50-60 urte artean.....	310
60-70 urte artean.....	250
70-80 urte artean.....	140
80 urtetik gorakoak.....	74



Bi mila leitzar 40 urte egin gabekoak dira. Badago etorkizuna!

Sarrio-ko "Fondo social" delakoa bukatzera doa

Igandean, Ontto eta Zizen II. Erakusketa

Sarrio Papeleratik hartutako idatziak garbi uzten duen bezala, fabrikako "fondo social" hortatik jubilatuek jasotzen zuten diru pittin hori kentzera doazte, desegin bait dute fondoa.

✓ Berriz ere kale garbitzaile bat gabe gaude. Lehen izan bazegoen, baina basura biltzera bidaltzen zuten. Kontratua bukatutakoan, ez diote berritu. Premia bazegoen bada herri hontan!

✓ Etxe zaharrak txukundu eta konpondu beharrez, teiltuan eta kanpotik egiten zaizkion konponketa lanak ez du zergarik ordaindu beharko. Gainerako obrak %2ko tasa izanen dute.

✓ Sugegorri batek hozka egin eta, larri aski ibilia da Arantxa Olaetxea andrea. Maxustak biltzen ari zelarik belasoro batean egin zion hozka eskuan, eta ikaragarri hazi zitzaion besoa, botaka eta xorabiatuta eraman zuten eritetxera. Onerako bi-

deak hartu ditu, orain.

✓ Bestelakoa izan da Bautista Iparragirre eta bere emaztearen suertea. Jubilatuen azkeneko Lezoko bidaietan, Benidormera hamabost egun joateko txartela tokatu zitzaizen. Aizu, eta lehen beren alabari kotxea tokatua irratari batean, eta Manolo semeari ordenagailua. Alafede!

✓ Lehiaketa-oposaketaren ariora, Antonio Chivite "Txepillo" izanen da berriz ete euskararen teknikaria, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranorako.

✓ Hamar hautagai aurkeztu dira elbarritu sikikoen monitore lanerako. Tailerra joanen den tokia ari dire txukuntzen.

✓ Ontto eta Zizen II. erakusketa igande hontan izanen da, Kultur taldeak antolatuta. Larunbatean bilduko dituzte, eta, sailkatu eta gero, plazan erakutsiko dituzte, 12etatik 7ak arte.



ANTTON ARGAZKIARI

Zaborra biltzeko egunak eta sistema aldatu egin dira

Bestalde, Zaharren Eguna antolatu du Umore Ona elkarteak Urriaren 18rako

ESTEBAN AROZENA

Urriaren 2az geroztik garrantziazko bi aldaketa nabaritu ditugu goizuetarrok basura edo zabor bilketari buruzkoak: bat egunarena eta bestea sistemarena.

Lehen puntuaz esan, orain arte asteartean eta ostiralean biltzen bazen ere, lehen aipaturiko egunetik astelehenean eta ostiraletara pasa dela bilketa. Halere, berrikuntzarik haundiena kontenedoreek ekarri dute eta hauekin batera zabor hori jasotzeko erabiltzen den kamioia eta zabortegi berria zaintze lanetaz arduratuko den makina.

Goizuetarrentzako gauza hauek denak berriak direnez, Udalak ohar batzuk ka-



Herriko zaharrak urriaren 18an izango dute beraien eguna

leratu ditu batez ere biltegi edo kontenedoreak ahal den egoera onenean edukitzeko helburuarekin. Hauetatik bat edo beste aipatuko ditugu ondoren: zabor poltsak beti ongi itxi likidorik ixur ez dadin; biltegia erabilitakoan

tapa edo estalkia jarri berriz; ez bota inoiz txatarrarik, gorotzik edo era hortako hondakinik biltegietara; azkenik, basurak egun berean edo bezperan ateratzea esakatzeko die Udalak herritarrei, kontenedoreen iraupene-

rako puntu hau oso inportantea dela azpimarratuz gainera.

Zaharren eguna

Umore Ona elkarteak ez dio hutsegingo azkeneko urte hauetako ohiturari eta udazkenean gaudenez, zaharren eguna antolatu du urriaren 18rako.

Bezperako truke eta mus txapelketek, igande goizean jokatu diren pilota partiduek eta Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariek osatzen dute asteburuko prestatu den egitaraua. Ez dago esan beharrik igande eguerdian elkartean burutuko den bazkaria izango dela ekintza nagusia, 65 urtetik gorako 100 lagun baino gehiago bilduko direlarik bertan.

ARESO

Uraldeak direla eta eskolako sotoan ura sartu zen


Bestalde, 77 milioi baino gehiago aurreikusten dira Hirurteko Planean, bestalde,

JUANA MARI SAIZAR

Kalte ugari izan ziren. Liburuak eta koltxoiak uraren gainean ibiliak. Horregatik astelehena eta astearte goizean klaserik ez zuten izan. Eskolako obraren arduraduna, Nafarroako Gobernua da eta ardura guziaz haren esku utzi dute. Eskola erreka ondoan dago eta uraldeak diren aldiro eskolara ura sartuko da.

□ **77.826.320** pzta aurreikusi dira Plan Trienalean, lau puntutan banatuak. Pabimentazioan 24.200.000, 8.019.000 uraren kontadoreak, baserritarako lau bide moldatzeko 35.700.000 eta herriko argia 14.907.320.

□ **Ehizeko** garaia dela eta urteroko postuak substatatu ditu Udalak. Ez dakigu zein den arazoa baino askoz diru gutxiago egin dute.



BAZTAN

Belateko tunelaren proiektua onartu da

Guzira 4.891 milioitako aurrekontua du eta 2.887 metro izanen ditu

JOSEBA


Obrak Arraizko Bente-tan hasi eta Doneztebe bitartean burutuko badira ere, tunela, 'Belateko Gurutzea' bezala ezaguna den tokian hasi eta Almandoztik hurbil ateriko da, lur azpitik ia-ia hiru kilometro pasatu ondok beraz.

Afektatutako lur eta ondasunak

Aldiberean, obrak egiteko erabili beharko diren lur eremuen desjabetze edo espropiazio prozesua martxan jarri du Nafarroako Gobernuak honez gero. Hau dela eta, informazio publikorako 20 eguneko epea zabalik dago eta normahik, beharrezkoa ikusiko balu, nahi dituen alegazioak presenta ditzake. Horretarako, planoak Baztango Balleko Etxean edo Nafarroako Gobernuak Obra Publikoetarako Departamentuak aurki daitezke.

Tunelaren xehetasunak

Lanak noiz hasiko diren oraindik ezagutzen ez bada ere, proiektuaren arabera, behin hasi eta hiru urteren barnean burutzea espero da.



Obrak hastea erabakiko denetik, hiru urteko epea izanen dute bukatzeko

Tunelari dagokionez, bi bide edo karril izanen ditu (guzira 7 metro zabal), eta bazter bakoitzean 1,95 metrotako bidebazterra. Altuerari dagokionez, erdian 5,90 metrotakoa izanen da.

Gainerako bidean, aipaturiko bi karrilei, mantso dabilzan kamioi edo autoendako hirugarren karril bat ere gehituko da.

Zulatze lanak faseka burutuko dira.

Belaten, akzidenteak eta hildakoak noiz nahi

Marin Errekako zubi ingurua egiazko *puntu beltza* bihurtu zaigu azken urteotan. Inguru horretan karreteratik ateri eta malda behiti joan diren kamioiak hainbertze dira honez gero. Eta jakina, malda behiti joandako kamioilarien artean, guti dira bizirik ateri direnak.

Problema hau larriagoa bihurtu da, behar bada, Almandozko saihesbide edo bariantea zabaldu zenetik. Zati horretan, karreteraren malda haunditu egiten da eta Mugaire aldera ongi zamatuak heldu diren kamioei zaila egiten zaie hartzen duten abiadura edo belozidatea kontrolatzea.

Afera honen aintzinean, beharrezkoak diren neurriak lehenbailehen hartzea eskatu dio Baztango udalak Nafarroako Gobernuari, bertzeak bertze "*frenatze bideak eta aparkalekuak zabaltea kamioientzako eta bidenabar, arriskua abisatuz seinale gehiago jartzea*".



ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Udazkeneko moda
Arropa eta Teletan**



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Koralaren omenezko plaza inauguratu zen hilaren 4ean

Berrogeitamargarren urteurrena ospatzen du eraberean

JOSEBA

Urriaren 4ean inauguratu zen Elizondoko Korala eta Juan Eraso bere zuzendariaren omenez egindako plaza. Modu berean, koralarren 50. urteurrena ospatzen zuten, 1942ko irailaren 7an egin bait zuten beraien lehen agerpena Elizondoko zinean.

Gero, koralarren partaide izandako 54 lagunei eta hildako berteze 14en senideei diploma bana eman zieten berteze opariaren artean.



Elizondoko Korala sortu zenetik 50 urte bete direla eta, oroitgarri modura, Plaza bat eskeini zaio. Urriaren 4ean ekitaldi baten bitartez inauguratu zen ofizialki.

W ttipi-flash

□ **Joko-Garbi I.** Sari Internazionalaren finala Azaroaren leian jokatuko da. Sari hau Aranabia elkarteak antolatzen du.

□ **Urriaren 31an** gausa izanen da Erratzun Xorroxin elkarteak antolatuta. Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Tapia eta Leturiak parte hartuko dute. Bertzalde, txartelak ere salgai dituzte. Parisera bi lagunendako bidaia edo mountain-bike bat suerteak lagunduz gero.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO



JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580338
ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373


G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza tikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

ZUGARRAMURDI


ETBn herriko gazteen txotxongiloak famatu dira

KORO eta MARGARI

Estefania, Mikel eta Agustinek «Kilimiliklik» txotxongilo taldea osatzen dute. Orain arte ez bazen hain ezaguna ere, gauek goizera ospe handia hartu du, beraiek izan direlako Euskadiko politikoen txotxongiloen egileak. Ondoko argazkian ikusten ahal duzue beraien lanaren muestra bat, edo bertzenaz, astearte arrats guziz ETBko «Ganbaran bai» programan.

□ Behin baina gehiagotan erran izan dugu kezkatzeko delabiztanle kopurua nola txikitzen ari den: urtero 7-8 hil eta bat jaio, ezkontzen diren gehienak kanpora bizitzera gaten direla...


Orain gaitz hunek bertze aldetik ere jotzen ari du: «Bixenteko» famili gaztea Irunera gan zen bizitzera eta «Elixondokoa» berriz Iruñera. Erran behar ere, kanpotik etorrita «Sutegian» eta «Kapondegian» biztanle berriak sartu direla, baina



«Kilimiliklik» Zugarramurdiko txotxongilo taldeak osatutako Arzalluzen irudia

hala ere problema hunek hor segitzen du: alde batetik hemen barna lan egiteko

aukera txarrak direla eta bertetik etxe-bizitza eskas herrian.



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK

Esquisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

FZ
FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU «FUJI» kalitatearekin.

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

BIDAIA
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUÑE

EZKONTZAK

Joaquin Zia Oteiza eta Inmaculada Danboriena Castejon, Iruñea eta Berakoa, ekainaren 13an.

J. Antonio Aranbarri Etxeberria eta Lourdes Oiartzabal Urroz, Azkoitia eta Berakoa, uzt.en 10ean.

Mikel Mikelajauregi Inziarte eta M^a Sol Etxeberria Fdez., Lesaka eta Berakoa, uztailaren 25ean.

Jose Manuel Fdez. Bermudez eta Pilar del Puerto Bertiz, Asturias eta Berakoa, abuztuaren 1ean.

Jose Antonio Eizagirre Ieregi eta Mertxe Burlada Etxebeste, Donostia eta Arantza, abuzt. 1ean.

Vicente Arozena eta M^a Carmen Mariezkurrena, Arantza eta Elgorriagakoa, abuztuaren 28an.

Santi Alzuri eta Josune Makuso, Sunbilla eta Aurtiz, abuztuaren 8an.

Santiago Mutuberria Aizega eta Ana Novoa Ripalda, Saldias eta Iruñekoa, irailaren 5ean.

Javier Garde Iñarrea eta Isabel Lournaga Agerrebere, Lekarotz eta Arraiotzkoa, irailaren 19an.

Alfonso Ariztegi Aldabe eta Francisca Agerrebere Iturralde, Urrotz eta Zigakoa, irailaren 12an.

Javier Karrikaburu Bidegain eta M^a Teresa Rekarte Urrutia, Arizkungoak, irailaren 5ean.

M. Angel Salaberria Eskudero eta Koro Etxeberria Salaberria, Goizuetakoak, abuztuaren 1ean.

Jose Luis Odriozola Gutierrez eta Arantxa Salaberria Apezetxea, Donostia eta Goizueta, iraila 5ean.

Esteban Gelbenzu Espelosin eta Itziar Eskudero Apezetxea, Arraiz eta Goizueta, irailaren 19an.

Jose M^a Zabaleta Apezetxea eta Esther Iribarren Perurena, Goizuetakoak, irailaren 26an.

Chantel Lasaga eta Jean Martin Arbenoits, Sara eta Urruñia, urriaren 2an.

Monique Telletxea eta Eric Pierre Bohhomme, Sarakoak, urr. 3an

JAIOTZAK

Samain Alvarez Goñi, Beintza-Labaienen, irailaren 2an.

Imanol Juanena Aleman, Urrotzen, irailaren 13an.

Beñat Apezetxea Elizondo, Goizuetan, Uztailaren 27an.

Itsaso Alcalde Etxepare, Lesakan, irailaren 18an.

Naia Irigoien Perez, Etxalarren, irailaren 28an.

Imanol Juanena Aleman, Urrotzen, irailaren 13an.

Laida Sukilbide Martin, Elgorriagan, irailaren 21ean.

HERIOTZAK

Jose Zugarramurdi Zozaia, Donezteben, irailaren 5ean, 71 urte.

M^a del Pilar Etxegia Etxeberria, Goizuetan, abuztuaren 21ean, 26 urte.

Fermina Eskudero Erregerena, Goizuetan, irailaren 2an, 77 urte.

Jose Maria Narbarte Fagoaga, Goizuetan, irailaren 26an, 87 urte.

Pedro Aristegi, Etxalarren, 79 urte.

Paco Agirre Lainez, Etxalarren, irailaren 30ean, 87 urte.

Alejandro Martikorena Fagoaga, Etxalarren, urriaren 5ean, 80 urte.

Victoria Alkoz Larrea, Leitzan, urriaren 7an, 82 urte.

J. M. ANDUEZA IRIARTE

Instalazio elektrikoak

- ☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*
 - Mangerak
 - Extintoreak
 - Ateak: R-30, R-60, R-90. etab...
- ☛ *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

Hiru goizuetarrek 100 urte beteko dituzte aurten

Jaxinta Eskudero, Maria Arozena eta Maria Apezetxeak, hain zuzen

Ehun urte betetzea edo, berdina dena, mendeurrena ospatzea ez da egunero egiten den gauza. Gainera, ehun urte betetzen dutenak hiru emakume badira eta hiruak Goizueta bezalako herri txiki batekoak, istoriara pasatzeko moduko gertakizuna suertatzen da beraien sorterrian. Hau dela eta, Jaxinta Eskudero, Maria Apezetxea eta Maria Arozena emakumeengana hurbildu gara, hiruak urtea bukatu baino lehenago 100 urteak beteko bait dituzte.



Donfermineneko Jaxinta Eskudero da hiruen artean xaharrena eta ezkongabea dago

E

z dakigu 1892garren urteak zer edo zer berezirik bazuen alaez, baina orduan jaiotako hiru goizuetar bizi dira oraindik, egun gutxiren barreranean 100 urte beteko dituztelarik.

Donfermineneko Jaxin-

ta Eskudero hilabete honen 21ean gaindituko du oso gutxi ailegatzen diren 100 urteen muga hori; Mitxelkoko Maria Arozenak, berriaz, hamar egun berandua go, hau da, Urriaren 31ean beteko du mendea. Hirue-

tan gazteena, Muxurdinbordako Maria Apezetxea da, honek Abenduaren 23an ospatzen bait du bere urtebetetze eguna.

Jaxinta ezkongabea da oraindik eta jubilatuta zenetik bere hiloba Anttoniren



Muxurdinbordakoak auzoko Kuxiñene baserrira kafea hartzera joateko ohiturari eusten dio

etxean bizi bada ere esan behar da hirurogei urte Goizuetatik kanpo igaro dituela, gehien bat neskame edo zerbitzari lanetan.

97 urteko senarra bizirik oraindik

Maria Arozenaren bizia guztiz alderantzizkoa da: honek hamabi seme-alaba hazi ditu, zaharrena larogei urtekoa, hauek hogeitahiru iloba eman dizkiote eta hauek hogeai aldiz birramona egin dute. Aipagarria da Mariaren senarra Paulo bizi

dela oraindik 97 urte beteak dituelarik.

Maria Apezetxea, bestalde, aspaldi alargundu zen eta lau seme alaba, hamalau iloba eta bederatzi biloba ditu. Aipatu, Mariak baduela ahizpa bat 95 urte dituena.

Osasun kontuan zeharo ezberdinak

Hiru emakume hauen osasun egoera zeharo desberdina dela esan dezakegu.

Jaxinta itsutua dago eta urte mordoa da oheratua dagoela.

Maria Arozena: «100 urtetara iristeko arrazoiatariko bat pattarrak ematen duen bixigarritasunean dago».

Bi Mariak, alderantziz, oso ongi aurkitzen dira daukaten adina kontutan harturik. Arozena aspaldi aulki gurgildunean edo silla de ruedas-en badabil ere osasun harrigarria du eta edozer gauza jateaz gain egunean hiru tragoxka pattar edaten ditu. Berak esaten duenez, 100 urtetara iristeko arrazoiatariko bat edari horrek ematen duen bixigarritasunean omen dago.

Muxurdinbordakoak hankak oso sanoak dauzka

oraindik eta auzoko base-rria den Kuxiñenera kafea hartzera joateko ohiturari eusten dio. Duela urte pare bat arte ontto biltzen ere saiatzen omen zen etxe inguruko hariztietan.

Ez dago esan beharrik noski, 100 urte bete ahalean Udalak oroitzarri bana oparitzeko asmoa duela herriko hiru zahar miresgarri hauei.

ESTEBAN AROZENA


Julian Mitxelena «Barraka», gau-lanetan hezitutako lasterkalaria

Gerra ondoko urte bat da, orain dela 20-30 urte gau-lana furi-furian zegoenean. Iluna da. Nagusiak hamarren bat laguneko kuadrilari agindu zehatzak eman dizkio: «Halako ordutan halako tokian». Paketeak 22-25 kilo bitartekoak. Puntillak, kafia, rodamientoak, botoiak... Izan ere, ia-ia beti paketeak iparraldetik hegoalderako bidea bait zuten, animalia kontuak berriz, kontrako bidea.

Paketea bizkarreratu, kilometro andana batez garraiatu eta etxera bueltatu orduko 4 ordu bederen aisa pasatuak.

Halere, nagusiak guardia zibilen sargentua bustia zuenean, bidez-bide, arriskurik gabe. Bertzenaz bidaxka eta mendiz. Problemarik suertatzen ez bazen dena ongi. Jornala ederra baseritik ateratzen zenarekin konparatuz. Uste-gabean altoa ematen zutenean orduan bai lasterrak eta zaratak!

Harrapatuz gero multa pagatu behar eta gainera, jornalik ezin kobratu. Goizeko 2ak edo 3ak aldera lotara eta hurrengo goizean segi beti bezala baserriko lanarekin. Siesta pixka bat egin eta ilunabarrean afari bokadu bat hartu eta berriro prest. Bizimodu hau arrunta izana da duela urte batzuk Bidasoaren bi aldeetan.



Sarako Kontrabandisten Lasterketa egiten hasi zenetik aurtien 30 urte bete direla eta, urteotan irabazle suertatu zirenak omenduak izan ziren. Barrakak 3 urtez segidan irabazi zuen aipatu lasterketa.

B

aita Julian Mitxelena «Barraka»rentzat ere, bere kasuan aparteko merituak dituelarik, gainera. Julian lesakarra dugu, Barraka baserrian sortua. Aspalditik argi-indarreko zentraletako kanaleak garbitzen enplegatua dagoen arren, duela

20-23 urte aski ezaguna zen bere izena Bidasoaldean. Izan ere, 3 urtez segidan Saran egiten den Kontrabandisten Lasterketan irabazle izana da, eta gainerakoan, aintzin-aintzineko postuetan parte hartu zuen aldiro.


Hogeitabederatzi urte zituela parte hartu zuen lehen aldiz lasterketan "Lesakako Kasinoko Miguel zenak lagunduta" dio Barrakak. Azkain, Irun eta Hondarribian antolatutako lasterketetan ere partu hartu izan du. "Halere, kurritutako guzietatik zailena Saran egindakoak izan dira, han bait daude maldarik gogorrenak" dio Barrakak.

Bere garaian 15-16 kilotako zakua eramaten zuten bizkarrean, gaur egun, berriz, eramane beharreko pisua 8 kilotakoa da eta zakua bizkarrean eramane beharrean, lepo ondora ingura daitekeen kamara batetan sartuta dago.

Dena dela, bere garaian Saratik Larun gainera joan etorria egiteko erabiltzen zuten denboraz galdetu diogunean, "nik 12 kilometroak egiteko 46 minutu behar izan nituen, aurtan Irazoki Berratarak 41 minutu eta 15 segundutan egin du noski. Marka onak egiteko gogor eman beharra zaio lehenagotik!".

Sariei dagokionez, aldirio koparen bat etxeratu duela dio Julianek, eta etxean 14 edo 15 ba omen ditu gordiak. Dirutan saririk hobereana Hondarribiko Guadalupe egindako lasterketa batean lortu omen zuen: "oraindela 19-20 urte 7.000 pezetatako saria politta zen gero!".

Lagunik hoberean lasterka edo kontrabandoan eginak dituen galdetu diogunean Julianek ez du ino-



"Lasterketetako sariak ez dira apenas hobetu gure garaian ematen zizkigutenekin konparatuz"

lako dudarik agertu, "kontrabandoan -dio berehala- lasterka kontrario aunitz. Norbait erortzen bazen... izor-hadi erran bai!".

Kontrabandoan hamasei urte zituela hasi omen zen, furi-furian zegoenean. Sarako bideak lehenagotik ongi ezagutuko zituela galdetzerakoan, "bai horixe, aski ongi bai!"- dio Barrakak irri egiten duen bitartean. "Sarako lasterketa

izaten zenean, egunez Saran kurritu, gauerako etxeratu orri, afari bokadua egin eta gaez segi berriz Lesakako zubira paketea hartzera!. Normalean paketea Lesakako zubian hartu eta Oiartzun edo Irungo mugara eramate izaten omen zen, "beti bide berrietatik. Egutero pasatuz arrastoak uzten baitira!". Zenbaitzutan harrapatua izanaz ere oroitzen da Julian, "aldi pila

batez gainera, tiro burrunba ederrak bai!. Halere beti eskapatu egiten ginen". Gogoratzen duen eskapadarik larriena Saran izandako bat izan omen zen Portugesak pasatzen ari zirenean. "Lainozerratua zen gauhartan, eta ustez eramane behar zireneko etxearen atea jo genuen, hara non, Gendarmeak zeuden txabolarrena jo! Gendarmeak agertu eta tiroka hasi ziren. Hura bai ederra!".

Diru aldetik, bertzalde, irabaziak arras diferenteak ziren paketeak pasatuz edo Portugesak pasatuz. "Guk 25 laguneko multzoa pasatzen genuen Oiartzun aldetik Sararaino. Bakoitzengatik mila pezeta ordaintzen ziguten, bortz mila duro guzira. Jornal politta zen gero oraindela hogei urte!".

"Garai fuertea izan zen hura! dio Barrakak oroitzapenei errepassoa emanez. Izan ere, egunez baserriko lanetan aritu eta gero gaez 3 edo 4 orduz ibili behar. "Bertze bizimoduaz zen hura. Geroztik izugarri aldatu da dena!".

Gauregun "azindapixar bat" bertzerik ez omen da pasatzen, dio Julianek. "Azkeneko urteotan bertze asuntua da. Bizkarka ez da inor ibiltzen. Kontu haiek akautu ziren betiko. Akautzeko hobiak ziren! azpimarratzen du Julianek "pasatuak pasatuak dire! gehituz.

Testua: J.M. IRIGOIEN
Argazkiak: K. TOLOSA

Nafarroako VI. Jolas-Kirolak laister hasiko dira 12 eta 15 urte bitarteko neska-mutilentzat

Bostgarren edizioa igeriketa kanpainarekin bukatu zen

92/93 kurtsoan zehar eginen dira VI. Nafarroako Jolas-Kirolak, bertze urte-tan bezala, 12-15 urte tartekoak diren gazteei kirola egiteko posibilitatea eskainiz.

Inskripzio epea Irailaren 21ean ireki zen eta Urriaren 10ean bukatu zen ondoko kirolentzako: eskubaloia, xakea, badminton (taldeka), saskibaloia, beisbol, areto futbola, irristaketa (hockeya), eta mahaiko tenisa (taldeka). Otsailaren 1a eta 13a bitartean, berriz, kirol hauetan izena eman daiteke: badminton (banaka), beisbol, areto futbola, herri kirola, irristaketa (laisterketa), rugby eta mahaiko tenisa (banaka). Atletismo kross, atletismo pista, txirrindularitza eta mendia (martxa erregulatua) kiroletarako berriz, aski izanen da froga baino 48 ordu lehenago apuntatzea.

Igeriketa aurten ezberdin

Igeriketa, aintzineko urteetatik ezberdina izanen da, aurtengoan neguko kanpaina ere izanen baita; eta udakoa, berriz, bertze kanpaina batekin beteko da.

Aurtengo VI. Nafarroako Jolas-Kirolak berezitasunak izanen ditu, eta hauek, batez ere, kuota eta fidantzak ordaindu beharra izanen da.



lazko ikasturtean, 701 kirolari aritu ziren Nafarroako V. Jolas Kirolean

V. Jolas-Kirolean balorazio positiboa



14 domina lortu zituzten eskualdeko ordezkariak igeriketa finalean

Nafarroako V. Jolas-Kirolen balorazio positiboa egin du eskualdeko kirol koordinatzaileak. Partehartzaileen kopurua (701) iazkoan baino %8a gehiago izan da. Azpimarratu behar da Herri Kirolen kasua, irabazle guztiak, maila guztietan Baztan-Bidasoa eskualdekoak izan bait dira.

Igeriketa finalak ere arrakasta handia izan zuten. Abuztuaren 29 eta 30ean burutu ziren Beran, eta eskualdeko igerilariek 3 urrezko domina, 4 zilarrezko domina eta 7 brontzezko domina lortu zituzten, gainera, eskualde beze-


la hirugarrenak geldituz. Ondorioak ikusiz, balorazio hagitza positiboa egin da. Hau honela gertatzeko lan aunitz egin izan da; eta hemen, Gure Txokoa elkarteak, APAk eta Berako Udalak emandako laguntza eta erreztasuna nahitaezkoak izan dira.

Nafarroako V. Jolas - Kirolean partaidetza



LAXOA

Baztan-Errekako gazteen txapelketa jokatzeko ari da



Baztan-Errekako helduen laxoa txapelketa eta kopa bukatu ondoren, orain gazteak beren txapelketan jo ta ke ari dira. Txapelketa honek duen garrantzia haundia da, pilota modalitate zaharrenaren iraupena bultzatu nahi badugu. Helburu hau osorik bete da, gazteek erakusten duten maila gero eta hobea bait da eta denbora gutxiren barranean helduen artean jokatzeko aukera izanen dute.

Irurita, Arraiotz, Donez-

tebe eta Oitzko herriak parte hartzen duten sei taldeak 30 partiduz osatutako liga bukatzen ari dira. Aste bakoitzean bi ihardunaldi jokatzeko dira, asteazken eta larunbat arratsaldetan. Gero, liga honetan sailkatu diren lehenbiziko lau taldeek erdialdeko jokatzeko dituzte eta kanporaketa hau gainditzeko duten bi taldeek finala aurrez aurre arituko dira. Azken partidua hurrengo urriaren 25ean eguerdiko 12tan Oitzko plazan ospatuko da.

HERRI KIROLAK

Sunbilla 560 kilotako sokatira txapelketan garaile

Irailaren 27an Elizondoko jokatzeko 560 kilotako sokatira txapelketan Sunbilla taldea suertatu zen garaile. Halere, berdintasuna izan zen nagusi, Basaburua,

Amaiur eta Sunbillako taldeak berdindu ondoren bi desenpate behar izan bait ziren txapelketan erabakitzeke. Ultzama eta Txantrea ere finalistak izan ziren.



Baztan preferenteko futbol taldeak bikain hasi du liga

Bortz partidua jokatu eta bortzak irabazi ditu

Iazko denboraldian ere nahiko ongi ibili bazen ere, aurtengoan badirudi C. D. Baztango preferenteko futbol taldea hirugarren mailara igotzeko asmo sendoekin dabilela. Izan ere, leerro hauek idazterakoan jokatzeko partidua guztiak irabazi ditu eta bakar bakarrik aurkitzen da sailkapenaren lehen pos-

tuan, hamar puntu eta lau positiboz. Talde guztiaren maila ona bada ere, aipagarria izan da orain arte atzelari eta atezainaren lana, bi gol bakarrik jaso bait dituzte (bere mailan gol guttien jaso duen taldea). Aintzinaldean ere ongi dabilta, hameka gol sartu bait ditu dagoeneko talde gazte honek.

Hamabostaldiko jokaldiak



Baztango Futbol taldea. Hasiera bikaina eman diote baztandarrek aurtengo ligari eta hirugarren mailara igotzeko itzaropena ere sortu dute beraien jarraitzaileengan. Momentuz lehen postuan daude. Ea horrela bukatzen duten.

Euriek zenbait herritan kirolk ezin egin ahal izatea. Frontoi estalirik ez duten zenbait herritan, frontoia bait da kirola egiteko leku bakarra. Kasu hauetan, sillonbol kirola egiten dute aunitzek, hau da, telebistan aintzinean orduak sartzea.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** pisu haundia alkilatzen da. ☎ 630217.

• **Elizondon** Txokoto karrikan pisua salgai. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 balkoiekin. 5.500.000 pzta. ☎ 581001.

• **Baserri** edo borda alokatuko genuke eskualdean. ☎ 450769.

• **Elgorriagan**, eraikuntza berrian atikoa salgai. ☎ 943-215938 (Begoña).

• **Beran** pisua salgai. ☎ 630637.

Lana

• **Beran edo Lesakan** lana egingo nuke, haurrak zaintzen edota etxeko lanetan. ☎ 637911 (Eduerne).

• **Elizondoko** neska as-teburuetan lan egiteko prest dago; haurrak zaintzen, etxeko lanetan, edota komertzio batean (Elizondon). ☎ 580398 (Rakel).

• **Hondarribian** 20 urtetik gorako neska interna behar dut. Haurra zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943-643605

Salerosketak

• **Belar** idortua salgai Ezpondakobordan (Eltzaurdia Auzoa). Bera.

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m² + 40 m² sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Honda** 125 MTX Trail motoa salgai, 175.000 pztan. Goizez. ☎ 943425770.

• **Mendi** bizikleta, Peugeot LX salgai. ☎ 630599.

• **Akordeioa** salgai, Crucianelli markakoa, 120 bajo, egoera oso onean. ☎ 637103.

• **Collie** txakurkumeak salgai. ☎ 599218.

• **Eskopeta** ona salgai, Lambet superpuesta markakoa, selekzionadorearekin. ☎ 510132.

• **Akordeioa** salgai, Welameisaer markakoa eta 96 bajukoa. Egoera oso onean. ☎ 510249.

• **Kamioi bat** salgai, 20 tonakoa. PMA daukana. Tarjeta komarkalarekin, NA-K. Prezio merkea eta egoera oso onean. ☎ 510203 (gaeuz).

Denetarik

• **Zure** baserrian aspal-ditik barazki edo zereal klaseren bat landu baduzu, hazia erosiko genizuke. ☎ 510177.

• **Gitarra** klaseak ematen dira. ☎ 630217.

• **Euskalerriko** barazki eta zereal klaseak biltzen ari gara, galdu ez daitezten. Gaiari zerbait badakizu eskertuko genizuke deitzea. ☎ 510177.

• **Lesakan** ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 637940.

• **Hemengo** berezko barazki eta zereal barietaterik lantzen baduzu hazia erosiko genizuke. ☎ 510177.

Harremanak

• **Arantzako** Korori: zorionak eta txanpainez ase zure urtebetetze egunean. Lesakako bi eroren partez.

• **Leitzeko** "Txotxa"ri: hodietatik zorionak eta urte askoz opatzen dizkizugu. Muxu haundi bat. M. eta P.

• **Lesakako** Gaztain epurdi maitea, zuk kilo batzuk galdu, nik 600 deska-

potablea erosita, orduantxe bai ze pareja del año. Sal-diasko Kubata de Ron.

• **Urdazubiko** Angelita-ren partez musu bero bat Jose Javier Zugarramurdikoarentzat.

• **Irungo** Hamid-eri: ez dut inoiz ahaztuko Berako besta hauek ezta ere zure muxu etakarizia beroak. Zuk ezagutzen duzun bat.

• **Lesakako** Rakel Villadangos-eri: zorionak zure urtebetetze egunean, Urriak 24ean, ongi pasa eta segi beti bezain alai. Beatriz.

• **Arraiozko** Gamio: oso guapoa zara. Lastima niri ez begiratzea. Askok pentsatzen dut zutan. Zure admiradora. Mirentxu.

• **Lesakako** Begoña Larralderi. Zorionak zure urtebetetzean (urriak 16). Baina ez harrotu sobera eta ongi pasa gelditzen zaizkizun 3 hilabete hauek, geo berriro 'plastazoa' etorriko baita. C. Inkordio.

• **Leitzako** Uxua Gomez-eri. Zorionak zure 11. urtebetetzean eta orain bezain jator izaten jarrai eza-zu. Zure lagunaren partez O, Z, A.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

Tfnoa: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

JAKINARAZTEN DA:

1.991.eko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1.992.eko azaroaren 30ean bukatzen da.
- Ordaintzen ez bada, epea Abenduaren 31 arte luzatuko da, %5aren erreargua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errearguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1.992eko urriaren 1ean.
PRESIDENTEAK

VI. LURRAREN EGUNA

BERA

1992ko Urriak 25

❖ VI. Gasna Lehiaketa

❖ Erakusketak:

Eskulangintza

Barazkiak

❖ Karrika Animazioa

❖ Dantzariak

❖ Berako Trikitixa

❖ Zirkuitz Txaranga

❖ Taloak eta Sagardoa

